



AZPIEGITURAK

Oarsoaldean zinema, telebista eta publizitate lanak ekoizteko azpiegiturak bilduko dituen gunea eraikiko dute denbora gutxi barru. Gaur egungo hutsunea betetzearren, ikus-entzunezkoen industriari merezi duen lekua emango bide dio.

ZINEALDEA: ZINEMA SUSTATZEKO GUNE BERRIA OARSOALDEAN



ALBERTO ELOSEGI

■ Pasaiaiko La Herrera industrialdea (ezkerrean) eta Oiartzungo Ugaldetxo auzoa dira bi kokagune posibleak.

Urnietako Sarobe Arte Eszenikoetarako Gunea, Euskal Herrian zinemagintza garatzeko azpiegiturarik ez zegoela ikusita, Zinealdea proiektuaren inguruan hasi zen hausnartzen. Hausnartu ezezik, proiektua mamitzen ere hasi zen. Sarobek duela sei urte ekin zion bideari, eta sorreratik egin du lan zazpigarren artearen alde. Zinema eskola bat du eta zinema ekoizpen ugari egin dituzte bertan, bai Sarobek, baita gunehori erabili duten enpresek ere.

Esperientzia horretatik abiatuta, ikus-entzunezko produktuek gorakada nabarmena izan dutela ikusi dute, eta hazten ari den merkatu horren aurrean, zerbait egin beharra zegoela hauteman zuten.

Lehenik eta behin, Urnietako Udalerajo zuten proiektu hori azaltzera, baina Urnietan ez zegoen halako eraikin bat egiteko lur zorurik. Ondoren, Oarsoaldea

Garapen Agentziarekin, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriako udalek bultzatu eta Pasaia Badia suspertzearen alde ari den erakundearekin, jarri ziren harremanetan. Ilusio handiz hartu zuen ideia Oarsoaldea Garapen Agentziak, eta proiektu horren aldeko apustua egitea erabaki zuten. Egun bideragarritasun plangintza

□ “Kokaleku egokiena La Herrera da; Untzigintza Museoaren ondoan egoteak itxura polita emango lioke”

burutzen ari dira elkarlanean. Oraindik ez dakite non kokatuko den; hala ere, kokaleku posibleak ari dira aztertzen. Aukerak bi dira, Pasaiaiko Portuko La Herrera industrialdea edo Oiartzungo Ugaldetxo auzoko futbol zelaiko ingurua. Proiektuaren sustatzaileek nahiago dute Zinealdea Pasaiaiko industrigunean kokatzea. Sarobeko zuzendari Enrique de Santiagok

esandakoaren arabera, “kokaleku egokiena La Herrera dela iruditzen zaigu. Gainera, Untzigintza Museoan bertan eraikitzeke asmoa dago, eta horrek itxura polita emango lioke. Dena den, portuko batzordea ez dirudi oso interesatuta dagoenik, eta Oiartzungo aukera aztertzen ari gara”.

Zinema izango da proiektuaren muina, baina bestelako ekoizpenak ere egingo dira telebista eta publizitaterako. Oarsoaldean kokatuko den zinema ekoizpen zentroak honako azpiegiturak eta zerbitzuak eskainiko ditu: batetik, arlo honetako enpresen plato eta bulegoak hartuko dituen eremua: bestetik, lokal eta instalazio libreak. Hemen sartuko lirateke 2000 metro karratuko zinema platoa, 400 metro karratuko telebista platoa, bulegoak, dekoratuak egiteko tailerra eta muntaketa eta emanaldi eranskinak, esate baterako.

Zerbitzuei dagokienean, langileri tekniko hornitua egongo da Zinealdea, tekniko oso espezializatuak eta ez hain espezializatuak izango ditu. Halaber, aktoreak eta estrak aukeratu ahal izateko casting zerbitzua eskainiko da. Beste zerbitzu batek produkzioak aurrera eramateko dirulaguntza, koprodukzio eta abarren inguruko informazioa eskainiko du, eta filmaketa burutzerakoan, laguntza etengabea emango die ekoizleei gune honek.

Zinemagintzaren ekoizpen gunea izatea helburu hartuta, hiru alorretan banatzen da Zinealdea ekimena. Lehenean enpresa pribatuak egongo lirateke, telebista ekoiztetxeak, argiztapenaz nahiz eszenografiak egiteaz arduratzen diren enpresak. Ikus-entzunezkoen sektorean jarduten duten industrien beharrak asetze aldera, enpresa ugariarekin harremanetan izan da Sarobe, eta oso baikor agertu dira proiektuekin. Enrique de Santiagok esan duenez, *“enpresa askok azaldu dute proiektuarekiko interesa. Aurrekontratu batzuk badaude, alabaina hau guztia ekainean Saroben birutuko den Zinema Eskolen Jardunaldietan zehazten joango da. Orduan mundu mailako enpresa asko etorriko da, postprodukzio digitalean murgilduak daudenak, eta esperientzia interesgarria izango da”*. Oarsoaldea Garapen Agentziako gerente Fernando Nébredak zera adierazi du: *“Hamabi enpresek azaldu dute ekimenen murgiltzeko asmoa, Panavision, Camararent eta Icaro tartean”*.

Bigarren alorrean Film Comission deritzan film batzordea legoke. Batzorde hau, administrazio publikoaren laguntzaz, ikus-entzunezkoen ekoizpena bere ekintza-eremura erakartzeaz arduratuko litzateke. Oarsoaldea Garapen Agentziako gerenteak honela definitu du: *“Film Comissionen funtzioa proiektua mundu osoan saltzea da, lan komertziala egingo luke”*. Azken finean, film batzordeak informazio, kudeaketa eta laguntza zerbitzuak eskainiko lituzke, produkzioak erraztu eta merkatu daitezzen. Orobat, *“planeta osoan zinemagintzan zer ekoizten ari den jakin behar du momentu oro batzordeak. Euskal Herriko paisajeak ‘salduko’ lituzke, eta ahal bezain beste filmazio hona erakarri. Hein batean*

turismo bulego baten modukoa izango litzateke”, dio Kike de Santiagok.

Hirugarren alorra zinema eskolak osatuko luke. Egun Urnietan dagoen ikasgela Zinealdera eramango dute; Sarobek hainbat urtetan jasotako esperientzia izango du oinarri eskolak, beraz. Gainera, luzatzea erabaki dutenez, bi urte iraungo ditu. *“Oso garrantzitsua da irakaskuntza irizpideak industria berarekin zehaztea, Urnietan jada gertatzen ari den bezala”*, azaldu du Sarobeko zuzendariak.

Ikasgelak Zinealden egoteak, prestakuntza teorikoa eta praktikoa emateaz gainera, ikasleen irteera profesio-



■ Lau erraldoi hauen ekoizpenaren hamairena erakarriko balu, ez legoke txarto.

nala bideratuko luke. Ildo horretatik, *“logikoa litzateke ere zinema aktoreentzako eskola bat bertan kokatzea, lanbidea bateratzeko”*, gaineratu du.

HEMEN ETA ORAIN. Zinealdea proiektu aitzindaria da; alabaina, inguruan ez dago ikus-entzunezko sektorearentzako zerbitzu azpiegiturak eskaintzen dituen halako gunerik. Proiektuaren sus-

tatzaileek ikusi zuten horrelako proiektu bat martxan jartzeko momentu egokia zela hainbat arrazoiengatik. *“Ez dakit zein arrazoi dela medio, meteorito bat erori zitzaigulako edo, Euskal Herrian zinemagile kopuru ikaragarria daukagu. Horrezaz gain, zinemazaletasun handia dago, horren adibidea da Donostiako Zinemaldia. Horregatik, potentzial hau bideratu beharra dago proiektu baten bidez”*, iritzi dio Enrique de Santiagok. Horri jarraiki, Euskal Herriko artista eta teknikari asko dago atzerrian lanean; hein batean berreskuratu nahi dira, eta bere lanaren zati bat hemen egiteko aukera eskura jarri nahi zaie. Sarobeko zuzendariak bere iritzia eman digu honen inguruan: *“Nik profesionalak atzerrira joaten jarraitzea espero dut, denontzat onuragarria baita. Arazoa ez da kanpora joate hutsa, baizik eta zure zonaldean beharra egonik azpiegitura sortzeko ausardia ez dagoelako alde egin behar izatea”*.

Ikuspuntu kultural nahiz ekonomikobatetik begiratuta, garrantzia handiko industria da zinea. Izan ere, Sarobeko arduradunaren ustetan, *“zinea industria da, lanpostu asko eta diru asko mugitzen du. Beste gauza bat da industria horren emaitza den kultura. Kultura horrek hiritarregana iritsi behar du, eta sormen kontzeptu espiritual bat egon behar du. Momentu honetan kultura industria da; hala, proiektu honek bukatuko du filmak pantailan izaten, pantaila txikian kalitatezko ekoizpenak izaten, eta eskualdean lanpostuak sortzen eta zonaldea suspertzen”*.

Sustatzaileek azpimarratu dute Euskal Herriko paisaje ugartasunak (mendia, itsasoa, basamortua, hiria, landa) aukera asko ematen dituela, eta ikus-entzunezkoetan jarduten duten enpresek filmazioak hemen burutzeko nahia agertzen dutela. Momentu honetan lanak egiten diren arren, azpiegitura eta zerbitzu faltak kanpora eramatera behartzen ditu. Zerbitzu guztiak gune batean bilduta egoteak ere abantailak dakartza, kostuak murrizten direlako.

Oarsoaldeari, bestalde, onurak ekarriko lizkioke proiektuak. Eskualdeko baliabide tekniko zein naturalak sustatuko lituzke, eta ekoizpenek sortutako

diruaren zati bat bertan gelditzea ahalbidetuko luke. Lanpostu teknikoek gain, kualifikazio gutxiagoko lanpostuak sortuko lituzke: arotzak, elektrizistak, jostunak... Oarsoaldea Garapen Agentziako gerente Nebredaren hitzetan, "film batek lanpostu tekniko eta artistikoez landa, bestelako 250 lanpostu inguru sortarazten ditu". Halaber, eskualdeko turismoa sustatuko luke, baina ez soilik eskualdekoa; oro har, Euskal Herriaren irudi berria hedatzen lagunduko luke.

Lehen aipatu bezala, bideragarritasun plangintza ari dira egiten. Sarobe ari da plana burutzen, eta Oarsoaldea Garapen Agentziak babes teknikoa ematen dio. De Santiagok plana zertan den azaldu digu: "Orain kokapena, diseinua eta gestio politikoa definitzen ari gara". Nebredaren arabera, "aurreikusten da proiektu hau burutzeko aurrekontua ez dela 500 milioi pezetatik (20 milioi libera) gorakoa izango. Diru hori nork jarriko duen zehazteke dago; dena den, hori bideragarritasun plana aurkeztean erabakiko da. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak parte har-tzea nahi genuke. Hala ere, ez da inber-tzio oso handia, kostu hori edozein industrialdek hartu dezake bere gain".

Gunea eraikitzeko 12.000 metro


karratuko lur saila beharko litzateke has-teko, eta ekimena errentagarria izan dadin, hiru film ekoiztu behar dira urtean. "Inbertsio egoki bat behar da Zinealdea proiektuarekin hasteko, errekuaragarria dena maila sozialean eta maila politikoan", Sarobeko zuzendariak aitortu duenez. Proiektuaren arduradunen arabeña, errentagarria izango litzateke ekimena. Eta adibidetzat jartzen dituzte Eskozia eta Rhone-Alpes zonaldeko esperien-tziak.

Ekainean bideragarritasun planaren emaitza aurkeztuko dute. Urria aldera erai-kuntza lanak hasi nahi lituzkete, azkar ez badabilta beste batzuk aurreratuko dire-lako. Enrique de Santiagok aipatu duenez, "eskaintza gehiago izan ditugu, baina guk Oarsoaldeari eman diogu hitza, eta beraiekin egingo dugu lan. Baina mugitu beharra dago, bestela, beste leku batean egingo dute".

Orain arte ekimenean laguntzeko prest agertu dira Oarsoaldeko lau udalak, Oarsoaldea Garapen Agentzia, Urnietako Udala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, ekoiztetxe garrantzitsuak, sektorean dabilzan profesionalak eta Euskal Herri-ko zein nazioarteko hainbat enpresa. Ea zeluloidezko zintak lotzen dituen ●

◆ KATIXA GARATE

□ "Oarsoaldeari onurak ekarriko lituzkete proiektuak; eskualdeko baliabide tekniko zein naturalak sustatuko lituzke"



■ Sarobeko zuzendari Kike de Santiago da proiektuaren bultzatzaileetakoa.

hik

to

Uztailaren 4, 5 eta 6an Donostian



Vigotski, informatika, internet, musika, hezkuntza berezia, plastika, sexualitatea, jolasak, euskara, ingelesa, lanbide heziketa, atxikimendua...

Eta aurkezpenak, hitzaldiak, eztabaidak, mahai inguruak...

Matrikulazio epea:
Apirilaren 14a arte

Informazioa: hik hasi aldizkaria
Tel.: 943 37 15 45

